



EUSKOREGITE

Ikuskaritza Teknikoari buruzko informazio
eta kudeaketarako ataria

**HIRUHILEKO TXOSTENA: Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen
Erregistroaren –EUSKOREGITE- kudeaketaren jarraipeneko**

Data

2025eko Martxoaren 31a

Aurkibidea

1.	AURREKARIAK	2
2.	HELBURUA.....	3
3.	ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOEN ERREGISTROKO DATUAK	4
3.1.	Behartuta dauden eraikinak	5
3.2.	Egindako EITak, izapidetze-prozesuan.....	6
3.3.	Ikuskapenen Erregistroan argitaratutako EITak	7
3.4.	Argitaratutako EITen analisia	9
3.4.1.	Identifikatutako esku-hartze mailak	9
3.4.2.	Argitaratutako zuzenketak	12
3.4.3.	Erabilera eta Mantentze-Planak	12
3.4.4.	Efizientzia energetikoa.....	13
3.4.5.	Irisgarritasuna	15
3.4.6.	EITak erregistratu dituzten udalen zerrenda	17

1. AURREKARIAK

EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen Erregistroa, Euskoregite izenekoa, 2014ko ekainaren 2an jarri zen abian, orduan indarrean zegoen araudian, **azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuan eta maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuan** ezarritako irizpideen arabera.

2016ko urtarrilaren 18an, Eraikinen Ikuskapen Teknikoen Erregistroan inskribatzeko prozedura aldatu zen, eta ikuskapenen kudeaketa informatikoa ahalbidetzen zuten lehen aplikazio informatikoak sortu ziren. Horretarako, udalei "REMITE" izeneko tresna eman zitzaion, eta tresna horretatik Euskoregite erregistro orokorrean izena ematen zuten.

Uztailaren 24ko **117/2018 Dekretu berria** argitaratu denez eta dauden aplikazioen sistema informatikoa berritu behar denez, eta prozesuen kudeaketa telematikoen bidez gardentasunaren eta ingurumenaren aldeko konpromisoarekin bat egiteko konpromisoa hartu denez, Euskoregite plataforma berria diseinatzeko lanak hasi ziren 2018an. Plataforma hori 2020eko ekainaren 8an hasi zen erabat funtzionatzen.

Dokumentu honen edukia, ahal den neurrian, aurretik argitaratutakoetara egokitzen da, baina aldaketa batzuk egiten dira, **Eukoregite plataforma berriak** datuak ustiatzeko ezarri duen sistematika berriak behartuta. Sistematika hori etorkizuneko txostenetan behin betiko forma hartzen joango da, funtzionalitate desberdinen ezarpen osoaren arabera.

Sistema berriaren ezarpenaren kronologia honako mugari hauetan laburbiltzen da:

- 2020ko apirilaren 6an, EITak kudeatzeko tresnak itxita geratu ziren, bai berria, bai aurrekoa; aldi horretan, datuen migrazioa egin zen bien artean, eta ezin izan zen espedienterik izapidetu. Egoera horrek bi hilabete iraun zuen. Apirilaren 6an, halaber, teknikarien modulua ireki zen. Modulu horrek sistema berrira ohitzeko erabiltzeko aukera ematen zuen, baina ez zuen txostenak sinatzeko aukerarik ematen.
- 2020ko maiatzaren 1ean, aplikazio berriaren bidez espedienteak sinatzeko baimena eman zen.
- 2020ko ekainaren 8an, sistema berriaren funtzionalitate guztiak gaitu ziren; beraz, data horretatik aurrera posible zen espedienteak sinatzea eta izapidetzea plataforma berrian.

- 2020ko azaroaren 2an, aurreko EITak kudeatzeko tresnak ireki ziren berriro, egiteke zeuden espedienteak erregistratu ahal izateko, eta lehen itxiera baino lehen denborarik eman ez zutenak izapidetzeko.
- 2021ko urtarrilaren 2an behin betiko itxi egin ziren EITak kudeatzeko tresnak. Informazioa kontsultatzeko sartu ahal izango da, baina ezingo da datu berriak erregistratu, bigarren eta behin betiko migrazioaren prozesua abiarazi baita.
- 2020ko bigarren hiruhilekoan ezinezkoa izan zenez EIT espediente berriak izapidetzea, erregistro-tresnak gaituta ez zeudelako, 2020ko martxoaren 31n idatzitako lehen hiruhilekoko txostenak 2020ko bigarren hiruhilekoan zehar luzatzen du bere indarraldia.
- 2023ko martxoaren 31n egin zen lehen jarraipen-txostena, Euskoregite plataformaren datu-basea eta bertan dauden datuak hartuta soilik. Aldaketa horrek 2023ko lehen hiruhilekoko txosteneko datuak aurrekoekin doitzea eragin dezake.
- 2024ko martxoaren 31n, lehen jarraipen-txostena egin zen HTML aplikazioarekin, Euskoregite plataformaren datuak hartzen, Open Data Euskadi plataformaren bidez. Aldaketa horrek 2024ko lehen hiruhilekoko txosteneko datuak aurrekoekin egokitu ditzake.

2. HELBURUA

Txosten honen helburua egungo Euskoregite atarian 2025eko martxoaren 31era arte jasotako datuak argitaratzea da.

Eraikinen Ikuskapen Teknikoak aukera ematen die erabilera nagusia bizitegitarako duen eta berrogeita hamar urte baino gehiago dituen eraikin baten jabeek eraikin horren kontserbazio-egoera zein den jakiteko; horrela, eraikinaren egonkortasuna, segurtasuna, estankotasuna eta finkapena ziurtatzeko behar den jarduerari buruzko orientazioa ematen die. Gainera, efizientzia energetikoari eta irisgarritasunari buruzko egoera ezagutzeko aukera ematen du.

Txosten honen bidez aztertzen dira Erregistroaren funtzionamendutik eratorritako laguntza teknikoari buruzko datuak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek EITen analisia, eta EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen Erregistroa indarrean sartu zenetik.


Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskapen Erregistroarekin (EUSKOREGITE) lotuta egindako beste lan batzuk zehazten dira.

3. ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOEN ERREGISTROKO DATUAK

Euskadik Europako eraikin parke zaharrenetako bat du. Nahiz eta azken urteotan birgaitze-lanetan maila errekorra lortu den, oraindik ere aurretik gelditzen den erronka handia da, Euskadiko 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialan onartzen den bezala.

Eustaten datuen arabera, Euskadiko hiru eraikinetatik bat duela 70 urte baino gehiago eraiki zen, eta %20 baino gutxiago XXI. mendean. Euskal herriko eraikinen parkearen antzintasun nabarmena erronka handia da birgaitze-politiketarako.

Euskal Aeko eraikinak, lurralde historikoaren eta eraikuntza-urtearen arabera



3.1. Behartuta dauden eraikinak

Gaur egun indarrean dagoen dekretuaren arabera (uztailaren 24ko 117/2018 Dekretua), Eraikinen Ikuskapen Teknikoa eduki behar duten eraikinak, **erabilera nagusia bizitegitarakoa dutenak, berrogeita hamar urtetik gorakoak** izango dira, oin berriko obrak edo horren eraberritze integrala amaitzen den egunetik aurrera.

Eraikinak berrogeita hamar urte bete eta hurrengo urtean aurkeztu beharko dira ikuskapenak dagokion udalean (alde batera utzita erabilera publikoko gune edo bide baterako fatxadarik ez duten familia bakarreko bizitegi-erabilerako eraikinak. Horrelakoak udalean aurkeztuko dira, udalak eskatuta).

Txosten honetan erabiltzen diren **behartutako eraikinak** kalkulatzeko, **1974an edo geroago eraiki ziren edo eraberritze integrala egin zitzaizen** eraikinak hartu dira kontuan, Euskoregite plataforma salbuetsita agertzen diren eraikinak kenduta, EUSTAT erakundearen datu-basearen arabera, dokumentu hau idatzitako datan. Salbuetsita adierazitako eraikinak bai aplikazio-eremutik kanpo dauden eraikinei bai EITa aurkeztetik salbuetsita dauden eraikinei, udalak hala eskatu arte, dagozkie.

	BEHARTUTA DAUDEN ERAIKINAK
ARABA	14.587
BIZKAIA	45.979
GIPUZKOA	27.096
GUZTIRA	87.662

Datu-basea alda daiteke, beraz, EIT egitera behartuta dauden bizitegi-eraikinen guztizkoak aldaketak izan ditzake gaur egun aurreikusitakoekin alderatuta.

3.2. Egindako ElTak, izapidetze-prozesuan

ElTen prozesuan zehar, Ikuskapen Teknikoen Erregistro Orokorrean argitaratu aurretik, honako egoera hauek gertatzen dira:

SINATUA- Ikuskapen Teknikoak, teknikariek egin eta sinatuak, udaletara bidaltzeko zain daude izapidetzeko.

BIDALIA- Euskoregite plataformaren bidez udalei bidalitako ikuskapen teknikoak, udal erregistro-zenbaki bat esleitzeke dutenak.

HARTUA- Udaletan aurkeztutako ikuskapen teknikoak, dagokien udal-erregistroa izanik, EUSKOREGITE Ikuskapen Teknikoen Erregistroan argitaratzeke daudenak.

Honako taula honetan, ikuskapen guztiak jasotzen dira. 2025eko martxoaren 31ean, aurrez deskribatutako egoeretako batean daude, eta, beraz, esku hartzen duten agenteek ekintzaren bat egiteko zain, Ikuskapenen Erregistroan argitaratu aurretik.

	SINATUAK	BIDALIAK	HARTUAK	GUZTIRA Sisteman, Izapidetze- prozesuan
ARABA	169	38	103	310
BIZKAIA	632	235	1.435	2.302
GIPUZKOA	393	115	455	963
GUZTIRA	1.194	388	1.993	3.575

Argitaratzeke dauden ElTei lotutako datuak ez daude herritarrek Ikuskapenen Erregistroan egindako kontsultetan, harik eta udal-zerbitzuek Euskoregite Plataformaren bidez argitaratu arte.

3.3. Ikuskapenen Erregistroan argitaratutako EITak


Dagokion udalean EITak jaso ondoren, udal-zerbitzuek ez onartzeko arrazoirik aurkitzen ez badute, Euskoregiteren Ikuskapen Erregistroan ARGITARATUko dituzte.

Txosten honen datan, **Euskoregite erregistroan argitaratutako EITak 57.933 dira**, eta horietatik 48.318 uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden eraikinei egindako txostenak dira, 50 urtetik gorako antzinatasuna dutelako. Horrek esan nahi du % 55,12ko betetze-maila izan dela.


Beste arrazoi batzuegatik argitaratutako gainerako EITak (9.615) dirulaguntzak eskatzeagatik, udal-zerbitzuen errekerimenduengatik edo jabetzaren borondatez entregatutako ikuskapenei buruzkoak dira.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
BEHARTUTA DAUDEN ERAIKINAK	14.587	45.979	27.096	87.662
ARGITARATUTA egoeran dauden EITak, antzinatasunagatik	6.759	25.563	15.996	48.318
Derrigortutako eraikinen betetze-maila	46,34%	55,60%	59,03%	55,12%
ARGITARATUTA egoeran dauden EITak beste arrazoi batzuegatik	2.162	3.868	3.585	9.615
IRAUNGITA erregistraturiko EITak	173	1.479	998	2.650
EITak, guztira ARGITARATUTA egoeran	8.921	29.431	19.581	57.933

Goiko taulan ikus daitekeenez, txostena egin den unean EITa aurkeztera behartuta zeuden eraikin guztietatik **48.318 EITak** erregistratu dira, hau da, behartuta zeuden eraikin guztien %**55,12a**.



Txostena egin den egunean, EAEk %55,12a bete du, eta 50 urtetik gorako eraikinen EITen kopurua 48.318 da.



3.4. Argitaratutako EITen analisia

Hurrengo ataletan, argitaratutako EITen datuak aztertuko dira, identifikatutako esku-hartze mailai, eraginkortasun energetikoari eta irisgarritasunari dagokienez, eta udal bakoitzaren zerrenda, erregistratutako EITekin.

3.4.1. Identifikatutako esku-hartze mailak

EITan jasotako informazioaren artean, ikusizko ikuskapenean detektatutako patologia bakoitzari lotutako ESKU-HARTZE MAILA ageri da. Bost maila bereizten dira, zuzenketak egiteko gehieneko epea zehazten dutenak.

1.MAILA. Berehalako jarduketa. Berehalako arriskua edo pertsonen kalte egiteko arriskua detektatzen bada. 24 orduko epea.

2.MAILA. Oso premiazko jarduketa. Epe ertainean pertsonen kalte egin diezaieketen akats garrantzitsuak detektatzen badira. Epea: 3 hilabete.

3.MAILA. Premiazko jarduketa. Eraikinaren narriadura azkarra eragin dezaketen akats larriak detektatzen badira. Urtebeteko epea, gehienez ere.

4.MAILA. Epe ertainean egin beharreko jarduketa. Sistema osoari eragiten ez dioten unean uneko akatsak detektatzen badira.

5.MAILA. Mantentze-lanen jarduketa. Akatsik antzematen ez bada edo akatsak arinak badira.

Hurrengo taulan, Euskoregite programan inskribatutako EITak dituzten eraikinen kopurua azter dezakegu, lurralde historikoaren eta EITak 2020ko apirilera arte izan duen esku-hartze mailaren arabera banatuta. 2020ko apiriletik aurrera beste esportazio bat egitea ezinezkoa denez, kontuan hartzen da eraikinaren esku-hartze maila kaltegarriena. Maila hori da EITaren esku-hartze maila kaltegarriena, akatsak zuzentzeko ziurtagirietatik eratorritako esku-hartze mailekin eguneratua, baldin eta eraikinak argitaratutako zuzenketak baditu.

	ESKU-HARTZE MAILA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EITak, guztira ARGITARATU TA egoeran	Aitortutako maila duten EIT guztien %
OBRA	1. MAILA BEREHALAKOA	12	83	39	19.280	34,84%
	2. MAILA OSO PREMIAZKOA	390	2.302	1.198		
	3. MAILA PREMIAZKOA	1.917	7.279	6.060		
MANTENTZE- LANAK	4. MAILA EPE ERTAINA	3.136	11.540	7.245	36.065	65,16%
	5. MAILA MANTENTZE- LANAK	2.618	7.099	4.427		
BATURA PARTZIALA		8.073	28.303	18.969	55.345	
Daturik gabe*		848	1.128	612	2.588	
Guztira		8.921	29.431	19.581	57.933	


* DATURIK GABEko talde honetan, idatzi zirenean esku-hartze mailak sartu ez zituzten dokumentuak sartzen dira, baita, Bilboko Udalaren berezko aplikaziotik izapidetu arren, Erregistro Orokorrean irauli ez direnak ere.

*Talde honetan, DATURIK GABE, idazteko unean esku-hartze gradurik jaso ez zuten dokumentuak sartzen dira.

Ikus daitekeenez, emandako datuekin argitaratutako EIT guztietatik, 19.226, el %**34,84k** 1. mailako (berehalakoa), 2. mailako (oso premiazkoa) eta 3. mailako (premiakoa) patologiak dituzte. Beraz, idatzi zenetik urtebete baino gutxiagoko epean obrak egin behar izan dituzte. Obra horiek zuzentzeko espediente baten xede izango dira, eta administrazio-kontrola izango dute.

Gainerako %**65,16k** 4. maila (epe ertainean egin beharreko obrak) eta 5. maila (mantentze-lanak) ditu, eta jabeak egin eta dagokion Erabilera- eta Mantentze-Planean jaso beharko ditu.

ERREGISTRATURIKO EITEN ESKUHARTZE MAILA



	ESKU-HARTZE MAILA	ESTAL KIA	ZIMEN DUA	EGITU RA	ITXITU RAK	HORNI DURA	EBAKUA ZIOA	GUZTI RA	%
OBRA	1. MAILA BEREHALAKOA	36	1	36	83	3	7	166	0,05
	2. MAILA OSO PREMIAZKOA	1.427	53	825	2.721	78	297	5.401	1,60
	3. MAILA PREMIAZKOA	9.352	452	5.476	12.535	463	2.718	30.996	9,17
MANTEN TZE- LANAK	4. MAILA EPE ERTAINA	14.462	2.189	12.334	20.467	2.288	7.266	59.006	17,46
	5. MAILA MANTENTZE- LANAK	31.765	51.191	38.374	20.994	53.847	46.147	242.318	71,72

Taulan, EITak ikuskapenetan aurkitutako arazoen larritasunaren arabera banatzen dira. Banakatze xehe horri esker, eraikinetako eremu problematikoak eta esku-hartze premiazkoak identifika daitezke.

Datu aipagarri bat da obrako esku-hartze gehienak itxituretan oinarritzen direla, 15.339 patologia baitituzte 1., 2. eta 3. graduetan. Bestalde, hornidura- eta saneamendu-instalazioak eta zimenduak dira patologia gutxien izan dituzten eraikuntza-elementuak.

3.4.2. Argitaratutako zuzenketak

Ikuskapen Teknikoen Erregistroko datuen arabera, **19.955** zuzenketa-ziurtagiri argitaratu dira guztira, argitaratutako ElTetan identifikatutako 1. maileri (berehalakoa), 2. maileri (oso premiazkoa) eta 3. maileri (premiazkoa) buruzkoak.

Argitaratutako zuzenketak	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
GUZTIRA	1.797	10.981	7.177	19.955

3.4.3. Erabilera eta Mantentze-Planak

Azaroaren 21eko 241/2012 Dekretua indarrean sartu zenetik, ElTa idazten den egunean Eraikinaren Libururik ez duten eraikin guztiek Erabilera- eta Mantentze-Plan bat eduki beharko lukete urtebeteko epean, *a priori* haien existentziaren administrazio-kontrolak egon gabe.

Uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuaren sarreraren ondoren zehazten da betebeharra ikuskapena egiteko unean, non ez diren identifikatu 1. (Berehalakoa), 2. (Oso premiazkoa) eta 3. (Premiazkoa) mailak, edo dagoeneko zuzendu diren; jabeak bere udalean erregistratu behar du Erabilera- eta Mantentze-Plan hori baduela egiaztatzen duen ziurtagiri bat. Aldi horretarako, **33.795** eraikinek eduki behar dute existentzia-ziurtagiria.

ElTa egitean Erabilera eta Mantentze Planaren ziurtagiria aurkeztu behar duten eraikinak Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea, Eraikinaren Liburua arautzen duena, indarrean sartu aurrekoak dira. Lege hau 2000ko maiatzaren 6an sartu zen indarrean. Eraikinen eraikitze-data urteak zehazten duenez, 2000. urtean eraiki ziren eraikinen kopuru mugatu bat dago, eta horietatik, hasiera batean, ezin da jakin Erabilera eta Mantentze Planaren existentzia-ziurtagiria aurkeztu behar duten ala ez.

Ondorengo taulan jasotzen den EITen Erregistroan dauden ziurtagirien ehuneko txikia gaur egun arte administrazio-kontrolak ez izateari zor zaio, eta islatzen diren zifrak plataforma berriarekin egin diren ziurtagiriak dira, gaur egun indarrean dagoen araudia betez.

EMP dagoela adierazten duten ziurtagiriak	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	Zuzendu gabeko EITen guztizkoaren %
Entregatutakoak	897	4.069	3.238	8.204	24,28 % 33.795 eraikinen gainean

*zenbaketa horretan ez dira sartu aurreko aplikazioekin egin diren eta Euskoregite plataforman argitaratu ez diren Erabilera eta Mantentze Planak.

3.4.4. Efizientzia energetikoa

Argitaratutako **57.933** EITetatik, efizientzia energetikoko adierazle globalen aniztasun handia dagoela ikus daiteke, baina nabarmentzekoa da ehuneko handiena duen adierazlea, E letrari dagokiola guztizkoaren **% 47,24** izanik, ondoren, F eta G adierazleei dagokiela.

Adierazle horiek efizientzia energetikoaren maila baxua adierazten dute, orain indarrean dauden ereduarekin alderatuta; hala ere, datu hori ez da arraroa; izan ere, 50 urtetik gorako antzinatasuna duten eraikinak ikuskatzen dira, eta horietako asko eraikitzeke unean, ez zegoen eraikinen baldintza termikoak arautzen dituen indarreko araudirik.

Adierazle orokorra Efizientzia Energetikoa	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	Argitaratutako Efizientzia Energetiko Ebaluazio guztien %ak
A	196	54	47	297	0,56%
B	50	44	29	123	0,23%
C	80	120	51	251	0,47%
D	502	690	489	1.681	3,18%
E	4.595	11.782	8.594	24.971	47,24%
F	1.637	7.667	5.098	14.402	27,24%
G	1.162	6.197	3.781	11.140	21,07%
Batura Partziala	8.222	26.554	18.089	52.865	


Daturik gabe*	699	2.877	1.492	5.068	
----------------------	-----	-------	-------	--------------	--

GUZTIRA	8.921	29.431	19.581	57.933	
----------------	--------------	---------------	---------------	---------------	--

* Aipatu behar da maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretua (egun uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuak indargabetua) indarrean jarri aurretik idatzitako EITek ez dutela efizientzia energetikoari buruzko informaziorik jasotzen; izan ere, une hartan ez zen beharrezkoa horiek sartzea; beraz, arlo horretan erreferentziarik ez duten EITen kopurua oso handia da, argitaratutako EIT guztien % 8,75a.

Kontuan izan behar da izapidetutako EIT kopuru handi bat, indarrean dagoen araudia betez, higiezin jabeek birgaitzerako laguntzak eskatzeko baldintza gisa planteatutako eraberritzeko edo birgaitzeko esku-hartzeak baino lehen egin zirela.

EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA




3.4.5. Irisgarritasuna

Erregistroan argitaratutako 57.933 EIT guztietatik, ikusten da ehuneko handi batek, % 92,92a, adierazten duela higiezinak ez duela irisgarritasuna ebatzita, eta horrek esan nahi du ez dagoela ibilbide irisgarririk bide publikotik etxebizitzetara bere espazio komunetatik iristeko.

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EIT kopurua	%
EBATZITAKO IRISGARRITASUNA	Bai	632	2.084	1.386	4.102	7,08%
	Ez	8.289	27.347	18.195	53.831	92,92%
	GUZTIRA	8.921	29.431	19.581	57.933	

Kontuan izan behar da izapidetutako EIT kopuru handi bat, indarrean dagoen araudia betez, higiezin jabeek birgaitzerako laguntzak eskatzeko baldintza gisa planteatutako eraberritzeko edo birgaitzeko esku-hartzeak baino lehen egin zirela.

IRISGARRITASUNA



■ Irisg. Konpondua = 7,08%

■ Irisg. Ez Konpondua = 92,92%

3.4.6. EITak erregistratu dituzten udalen zerrenda

Ondorengo tauletan, EITen kopurua zehazten da, udalerriaren eta lurralde historikoaren arabera:

KOKALEKUA		ERAIKIN BEHARTUAK	ANTZINATASU NAGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK	KONPLIMENDU MAILA	BESTE ZIOENGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK (ez antzinatasuna)	IRAUNGITA ERREGISTRATU RIKO EITAK	ERREGISTRATU RIKO EITAK GUZTIRA
Lurr. Hist.	Udalerria						
Araba	Agurain/Salvatierra	230	145	63.04%	88	0	233
	Alegria-Dulantzi	127	41	32.28%	16	1	57
	Amurrio	569	145	25.48%	71	5	216
	Aramaio	213	107	50.23%	42	2	149
	Armiñón	60	31	51.67%	22	0	53
	Arraia-Maeztu	236	76	32.20%	18	0	94
	Arratzua-Ubarrundia	184	102	55.43%	10	0	112
	Artziniega	196	57	29.08%	11	0	68
	Asparrena	257	71	27.63%	20	0	91
	Ayala/Aiara	403	16	3.97%	14	0	30
	Añana	105	68	64.76%	28	0	96
	Barrundia	160	8	5.00%	6	0	14
	Baños de Ebro/Mañueta	98	4	4.08%	1	0	5
	Berantevilla	158	9	5.70%	9	0	18
	Bernedo	249	43	17.27%	30	0	73
	Campezo/Kanpezu	264	111	42.05%	49	0	160
	Elburgo/Burgelu	41	4	9.76%	10	0	14
	Elciego	245	120	48.98%	38	1	158
	Elvillar/Bilar	80	33	41.25%	6	1	39
	Erriberagoitia/Ribera Alta	186	56	30.11%	19	0	75
	Harana/Valle de Arana	125	13	10.40%	3	0	16
	Iruraiz-Gauna	128	60	46.88%	4	0	64
	Iruña Oka/Iruña de Oca	310	19	6.13%	27	0	46
	Kripan	36	17	47.22%	3	0	20
	Kuartango	175	46	26.29%	21	0	67
	Labastida/Bastida	506	57	11.26%	6	0	63
	Lagrán	86	21	24.42%	3	0	24
	Laguardia	330	126	38.18%	16	0	142
	Lanciego/Lantziego	106	37	34.91%	4	0	41
	Lantarón	319	0	-	0	0	0
	Lapuebla de Labarca	158	81	51.27%	3	0	84
	Laudio/Llodio	693	525	75.76%	74	8	599
	Legutio	194	104	53.61%	21	0	125
	Leza	83	31	37.35%	3	0	34
	Moreda de Álava/Moreda	77	26	33.77%	10	0	36
	Navaridas	55	13	23.64%	3	0	16
	Okondo	125	49	39.20%	3	0	52
	Oyón-Oion	261	62	23.75%	8	5	70
	Peñacerrada-Urizaharra	89	31	34.83%	2	0	33
	Ribera Baja/Erribera Beitia	139	48	34.53%	1	0	49
	Samaniego	54	25	46.30%	5	0	30
	San Millán/Donemiliaga	216	55	25.46%	9	0	64
	Urkabustaiz	167	40	23.95%	14	0	54
	Valdegovía/Gaubea	490	12	2.45%	5	0	17
	Villabuena de Álava/Eskua	79	38	48.10%	6	0	44
	Vitoria-Gasteiz	4.750	3.753	79.01%	1.330	147	5.083
	Yécora/Ilekora	73	56	76.71%	18	0	74
	Zalduondo	43	5	11.63%	1	0	6
	Zambrana	129	67	51.94%	18	0	85
	Zigoitia	219	45	20.55%	10	0	55
	Zuia	311	50	16.08%	23	3	73
	Araba guztira	14.587	6.759	46,34%	2.162	173	8.921

KOKALEKUA		ERAIKIN BEHARTUAK	ANTZINATASU NAGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK	KONPLIMENDU MAILA	BESTE ZIOENGATIK ERREGISTRAT URIKO EITAK (ez antzinatasuna)	IRAUNGITA ERREGISTRAT URIKO EITAK	ERREGISTRAT URIKO EITAK GUZTIRA
Lurr. Hist.	Udalerria						
Bizkaia	Abadiño	286	160	55.94%	50	2	210
	Abanto y Ciérvana-Abant	766	266	34.73%	43	58	309
	Ajangiz	81	5	6.17%	3	0	8
	Alonsotegi	205	167	81.46%	9	1	176
	Amorebieta-Etxano	710	359	50.56%	44	9	403
	Amoroto	60	29	48.33%	8	0	37
	Arakaldo	24	1	4.17%	0	0	1
	Arantzazu	51	30	58.82%	1	0	31
	Areatza	84	39	46.43%	22	0	61
	Arrankudiaga-Zollo	119	12	10.08%	6	0	18
	Arratzu	79	1	1.27%	0	0	1
	Arrieta	119	11	9.24%	6	0	17
	Arrigorriaga	365	272	74.52%	73	7	345
	Artea	130	40	30.77%	4	1	44
	Artzentales	219	2	0.91%	0	0	2
	Atxondo	120	44	36.67%	19	1	63
	Aulesti	129	65	50.39%	4	13	69
	Bakio	361	74	20.50%	9	6	83
	Balmaseda	449	201	44.77%	10	13	211
	Barakaldo	2.873	2.072	72.12%	100	107	2.172
	Barrika	124	3	2.42%	2	0	5
	Basauri	1.075	787	73.21%	96	86	883
	Bedia	163	62	38.04%	6	2	68
	Berango	240	149	62.08%	39	0	188
	Bermeo	781	597	76.44%	107	75	704
	Berriatua	89	40	44.94%	18	0	58
	Berriz	259	102	39.38%	32	0	134
	Bilbao	7.476	7.204	96.36%	711	507	7.915
	Busturia	280	78	27.86%	13	0	91
	Derio	203	93	45.81%	28	6	121
	Dima	346	47	13.58%	5	0	52
	Durango	564	466	82.62%	157	16	623
	Ea	204	77	37.75%	13	0	90
	Elantxobe	71	32	45.07%	18	0	50
	Elorrio	464	318	68.53%	92	5	410
	Erandio	903	330	36.54%	71	37	401
	Ereño	43	0	-	0	0	0
	Ermua	266	224	84.21%	38	14	262
	Errigoiti	144	2	1.39%	0	0	2
	Etxebarri	219	147	67.12%	22	6	169
	Etxebarria	97	45	46.39%	23	1	68
	Forua	110	48	43.64%	10	0	58
	Fruiz	37	0	-	2	0	2
	Galdakao	954	487	51.05%	106	77	593
	Galdames	273	0	-	0	0	0
	Gamiz-Fika	127	20	15.75%	1	0	21
	Garai	42	0	-	0	0	0
	Gatika	171	20	11.70%	10	0	30
	Gautegiz Arteaga	127	12	9.45%	10	2	22
	Gernika-Lumo	695	412	59.28%	95	25	507
	Getxo	2.151	1.651	76.75%	539	46	2.190
	Gizaburuaga	17	0	-	1	0	1
	Gordexola	283	92	32.51%	13	0	105
	Gorliz	417	265	63.55%	50	7	315
	Güeñes	536	267	49.81%	10	17	277
	Ibarrangelu	139	31	22.30%	15	1	46
	Igorre	468	134	28.63%	0	2	134

KOKALEKUA		ERAIKIN BEHARTUAK	ANTZINATASU NAGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK	KONPLIMENDU MAILA	BESTE ZIOENGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK (ez antzinatasuna)	IRAUNGITA ERREGISTRATU RIKO EITAK	ERREGISTRATU RIKO EITAK GUZTIRA
Lurr. Hist.	Udalerria						
Bizkaia	Ispaster	100	6	6.00%	3	0	9
	Iurreta	211	114	54.03%	20	1	134
	Izurtza	32	9	28.13%	11	0	20
	Karrantza Harana/Valle de	758	325	42.88%	80	0	405
	Kortezubi	96	9	9.38%	2	0	11
	Lanestosa	93	0	-	0	0	0
	Larrabetzu	214	60	28.04%	11	1	71
	Laukiz	166	1	0.60%	0	0	1
	Leioa	547	192	35.10%	85	4	277
	Lekeitio	501	276	55.09%	18	6	294
	Lemoa	312	189	60.58%	19	0	208
	Lemoiz	153	18	11.76%	9	0	27
	Lezama	215	20	9.30%	4	0	24
	Loiu	241	29	12.03%	7	0	36
	Mallabia	165	65	39.39%	2	0	67
	Markina-Xemein	410	302	73.66%	23	66	325
	Maruri-Jatabe	113	5	4.42%	2	0	7
	Mañaria	80	34	42.50%	6	1	40
	Mendata	109	1	0.92%	0	0	1
	Mendexa	68	5	7.35%	2	0	7
	Meñaka	100	4	4.00%	0	0	4
	Morga	113	1	0.88%	0	0	1
	Mundaka	163	91	55.83%	34	2	125
	Mungia	1.348	284	21.07%	30	28	314
	Munitibar-Arbatzegi Gerri	107	5	4.67%	0	0	5
	Murueta	44	5	11.36%	5	0	10
	Muskiz	523	54	10.33%	17	8	71
	Muxika	329	70	21.28%	41	0	111
	Nabarniz	72	41	56.94%	0	0	41
	Ondarroa	338	263	77.81%	62	38	325
	Orozko	419	165	39.38%	27	0	192
	Ortuella	492	207	42.07%	32	0	239
	Otxandio	218	1	0.46%	0	0	1
	Plentzia	291	139	47.77%	39	5	178
	Portugalete	1.596	1.237	77.51%	114	45	1.351
	Santurtzi	1.574	1.069	67.92%	17	33	1.086
	Sestao	1.021	814	79.73%	42	53	856
	Sondika	343	159	46.36%	13	3	172
	Sopela	366	181	49.45%	82	1	263
	Sopuerta	408	9	2.21%	4	0	13
	Sukarrieta	77	2	2.60%	0	0	2
	Trucios-Turtzioz	180	0	-	0	0	0
	Ubide	56	2	3.57%	0	0	2
	Ugao-Miraballes	138	22	15.94%	10	1	32
	Urduliz	161	75	46.58%	22	1	97
	Urduña/Orduña	340	170	50.00%	73	11	243
	Valle de Trápaga-Trapaga	854	203	23.77%	26	9	229
	Zaldibar	166	68	40.96%	12	3	80
	Zalla	541	138	25.51%	24	4	162
	Zamudio	220	53	24.09%	16	1	69
	Zaratamo	152	80	52.63%	2	0	82
	Zeanuri	308	67	21.75%	23	0	90
	Zeberio	272	92	33.82%	25	0	117
	Zierbena	200	16	8.00%	4	4	20
	Ziortza-Bolibar	77	24	31.17%	4	0	28
	Bizkaia guztira	45.979	25.563	55,60%	3.868	1.479	29.431

KOKALEKUA		ERAIKIN BEHARTUAK	ANTZINATASU NAGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK	KONPLIMENDU MAILA	BESTE ZIOENGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK (ez antzinatasuna)	IRAUNGITA ERREGISTRATU RIKO EITAK	ERREGISTRATU RIKO EITAK GUZTIRA
Lurr. Hist.	Udalerrria						
Gipuzkoa	Abaltzisketa	62	0	-	0	0	0
	Aduna	35	16	45.71%	3	1	19
	Aia	165	7	4.24%	7	0	14
	Aizarnazabal	65	17	26.15%	4	0	21
	Albiztur	71	1	1.41%	1	0	2
	Alegia	109	67	61.47%	12	1	79
	Alkiza	60	7	11.67%	0	0	7
	Altzaga	33	1	3.03%	0	0	1
	Altzo	61	2	3.28%	0	0	2
	Amezketza	127	29	22.83%	4	0	33
	Andoain	519	383	73.80%	45	3	428
	Anoeta	81	44	54.32%	14	0	58
	Antzuola	161	58	36.02%	19	1	77
	Arama	13	2	15.38%	0	0	2
	Aretxabaleta	262	124	47.33%	34	8	158
	Arrasate/Mondragón	619	559	90.31%	128	36	687
	Asteasu	69	37	53.62%	10	1	47
	Astigarraga	142	73	51.41%	22	2	95
	Ataun	203	51	25.12%	15	1	66
	Azkoitia	353	296	83.85%	80	5	376
	Azpeitia	578	305	52.77%	69	9	374
	Baliarrain	19	0	-	0	0	0
	Beasain	400	282	70.50%	45	10	327
	Beizama	44	0	-	1	0	1
	Belauntza	19	11	57.89%	5	0	16
	Berastegi	121	82	67.77%	31	0	113
	Bergara	848	381	44.93%	63	25	444
	Berrobi	58	19	32.76%	1	0	20
	Bidania-Goiatz	86	7	8.14%	2	0	9
	Deba	318	166	52.20%	51	5	217
	Donostia/San Sebastián	5.341	3.603	67.46%	982	306	4.585
	Eibar	894	648	72.48%	41	52	689
	Elduain	42	20	47.62%	0	0	20
	Elgeta	91	40	43.96%	17	2	57
	Elgoibar	445	248	55.73%	69	17	317
	Errenteria	1.349	804	59.60%	23	32	827
	Errezil	103	1	0.97%	0	0	1
	Eskoriatza	228	109	47.81%	20	3	129
	Ezkio-Itsaso	115	25	21.74%	3	1	28
	Gabiria	90	0	-	3	0	3
	Gaintza	22	0	-	0	0	0
	Gaztelu	22	0	-	0	0	0
	Getaria	148	74	50.00%	28	13	102
	Hernani	706	541	76.63%	107	9	648
	Hernialde	35	5	14.29%	0	0	5

KOKALEKUA		ERAIKIN BEHARTUAK	ANTZINATASU NAGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK	KONPLIMENDU MAILA	BESTE ZIOENGATIK ERREGISTRATU RIKO EITAK (ez antzinatasuna)	IRAUNGITA ERREGISTRATU RIKO EITAK	ERREGISTRATU RIKO EITAK GUZTIRA
Lurr. Hist.	Udalerrria						
Gipuzkoa	Hondarribia	893	531	59.46%	191	33	722
	Ibarra	170	87	51.18%	22	3	109
	Idiazabal	226	75	33.19%	23	0	98
	Ikaztegieta	40	16	40.00%	2	0	18
	Irun	1.786	1.285	71.95%	298	67	1.583
	Irura	31	17	54.84%	4	0	21
	Itsasondo	90	36	40.00%	1	0	37
	Larraul	27	4	14.81%	0	0	4
	Lasarte-Oria	340	249	73.24%	67	20	316
	Lazkao	198	155	78.28%	20	1	175
	Leaburu	41	7	17.07%	2	0	9
	Legazpi	354	293	82.77%	47	8	340
	Legorreta	128	84	65.63%	7	0	91
	Leintz-Gatzaga	37	7	18.92%	8	2	15
	Lezo	197	103	52.28%	48	3	151
	Lizartza	112	50	44.64%	0	0	50
	Mendaro	115	50	43.48%	8	1	58
	Mutiloa	50	1	2.00%	0	0	1
	Mutriku	264	114	43.18%	54	4	168
	Oiartzun	580	247	42.59%	69	10	316
	Olaberria	86	74	86.05%	2	0	76
	Ordizia	281	192	68.33%	38	15	230
	Orendain	38	0	-	0	0	0
	Orexa	15	0	-	0	0	0
	Orio	189	154	81.48%	32	32	186
	Ormaiztegi	82	47	57.32%	10	1	57
	Oñati	683	286	41.87%	75	33	361
	Pasaia	533	408	76.55%	40	24	448
	Segura	88	36	40.91%	18	1	54
	Soraluze/Placencia de las	260	149	57.31%	15	9	164
	Tolosa	738	421	57.05%	59	84	480
	Urnietta	180	85	47.22%	15	2	100
	Urretxu	152	116	76.32%	12	16	128
	Usurbil	331	132	39.88%	48	4	180
	Villabona	206	105	50.97%	38	6	143
	Zaldibia	145	7	4.83%	1	1	8
	Zarautz	637	451	70.80%	151	47	602
	Zegama	242	90	37.19%	8	1	98
	Zerain	58	1	1.72%	0	0	1
	Zestoa	366	161	43.99%	14	1	175
	Zizurkil	99	59	59.60%	12	0	71
	Zumaia	335	226	67.46%	123	17	349
	Zumarraga	341	240	70.38%	44	9	284
	Gipuzkoa guztira	27.096	15.996	59,03%	3.585	998	19.581
Euskadi	EUSKADI GUZTIRA	87.662	48.318	55,12%	9.615	2.650	57.933